

Tradizioen sorrerak

B

adago, Ur, Josi, aspaldi (altxatu eta liburutegitik mahai gainera ekarri dut) liburu bat *Amazonen*, beste zerbait arakatzen ari nintze-la pantailaratu eta erosi nuena: *The Invention of Tradition/Edited by Eric Hobsbawm and Terence Ranger* du izenburu (Jon Juaristi zerak *Cambio de destino* oroitzapen liburuan bere bizitzarekiko iraulgarri deritzona).

Eta horretaz dihardu, alegia, tradizioen sorreraz eta ezartzeaz.

Eskoziako *High-land* eremuaren sorrerak bertako nazionalismoarekin duen esteka aztertzen du, esaterako (*kilta* gizon eskoziarrek daramaten gona hori garai horretako asmakizuna omen); edo Inperio Britainiarak Indian bere boterea zilegiztatzeko sortu zuen zeremonia eta kondaira ikertzen ditu (etor daitezela gero hondarribi-irundarrak Alardearen berezko izaera intrintsekoarekin!), edota masa-kulturak XIX. mende bukaeran sortutako tradizioak xehatzen.

Liburuaz akordatu naiz zuen artikulua irakurtzean, izan ere, Axularren irakurketa jarraia eta Axularren, eta hedaduraz, gure tradizio literario osoaren, balorazioa egitea tradizioen sorrerarekin loturik baitago, kanon literarioak tradizioaren ezartzearen bidez sendotzen eta finkatzen baitira atzean indar eginez normalean botere bat, askotan nazionala, izan dutelarik.

Ez hori bakarrik, ikerketa *post* guztiek (postkoloniala, postmarxista, postfeminista, postgenero, postposta) ongi asko azaldu duten bezala, kanonaren sorrera kanon horren baloratze arauekin batera gauzatu da, bata bestearengatik bereizi ezin ditugula.

Oso argi dugu Shakespeare eta Cervantes onak iruditzen zaizkigula, eta Axular “txarra”, baina argi eduki behar dugu, esaten digute *postek* eta halaxeda, Shakespeare eta Cervantes ez dituztela aingerutxoek aldareta-



JUDIT FERNANDEZ

Juanjo Olasagarre

Apalategi

Basterrerexea

ratu baizik eta kalitateak, hizkuntza jakin baten aldeko hautuak, botere ekonomiko jakin batek, gizarte klase baten aldeko apustuak, bizitzeko modu batzuen gainetik beste batzuen goratzeak eta abar eta abarrek. Hitz batean, hastapenetako Elizabethen Inperio Britainiarra zuela Shakespearek atzean, Felipe II.aren gainbehera hasitakoa Cervantesek.

Ombre, klaro, aporia bat litzateke tradizio hori gertatu ez balitz bezala egitea, nahiak nahi garena baino ez garelako, baina beharbada komeniko litzateke guretzat baliagarri izanen diren tradizioak sortzen hastea, ondokoei erreparatu gabe.

Literaturan arazo bat daukagu, bai, izan ere, gure klasiko gehienak arrotz dira gure sentsibilitatearekiko, ez gara kristauak eta are gutxiago belaunaldi gazteak, eta nahiz Leizarraga gizajoa ez aritu sorginen erreketen alde, eta erlijioaren alderdi irekiagoa erakutsi (aztertu beharko litzateke) ez digu balio, Axularrek balio ez digun bezala.

Beraz Txomin Agirrek, demagun, ez baditu gure nahiak asetzen, berrinterpretatzen dezagun. Izan ere, aisa froga daiteke *Garoa* irrika homoerotikoz josirik dagoela eta Malen komentura sartu aurretik familia osoa meza entzuten ari delarik, han dagoen Jainkoaren ia deskripzio mistikoa sartuko den komentuko ama superioraren gorputzarekiko desio lesbikoa dela.

Hori, edo Urrek proposatzen digun klasi-koen goi-etorreraren zain gelditzea: “Lehenbailehen hil daitezten itxarotea baino ez zaigu geratzen”.

Eta gero batzarretik batzarrerara, kongresutik kongresura, omenalditik omenaldira itobeharrean (edade bat izanen dugu ja) ibiltzea, autobusa gora, autobusa behera klasikoa kanonera goratzen saiatuz. Joder ze lanak! Hau jubilazioa datorkiguna! ■



Literaturan arazo bat daukagu, bai, izan ere,
gure klasiko gehienak arrotz dira gure
sentsibilitatearekiko, ez gara kristauak
eta are gutxiago belaunaldi gazteak

